

2011ko EPE HAUTATZE-PROZESUA

OHAR INFORMATIBOA

I. Eranskinean ageri direnek (**destino-aukera duten izangaiak**), oinarri orokorretako 14. oinarriaren arabera, honako **ekintzak** egin behar dituzte, izangaien zerrenda duen ebazpena web orrian argitaratu eta **hurrengo 15 egun balioduneko epean**:

1. **Destino-aukeraketa** web orrian. Behar diren [azalpenak](#) ematen dira destino-aukeraketa elektronikoa web orri honetan egin ahal izateko.

2. Osakidetzako Prebentzio Zerbitzuaren **mediku-azterketa**. Hautaketa Zerbitzuak, zentroko inskripzio-eskaeran emandako posta elektronikoa edo telefono bidez, interesdun bakoitzari jakinaraziko dio mediku-azterketarako zita eskatu behar duela.

3. **Baldintzak eta merituak egiaztatzen dituen dokumentazioa balioztatu/entregatzea.** Interesdunen eskura dago web honetan [dokumentazioa entregatzeko Eredua](#).

- Destinoaz jabetzeko aukera duten Osakidetzako langileek bere zerbitzu-erakundeko Pertsonaleko Zuzendaritzan eskatu behar dute zita dokumentazioa balioztatzeko.
- Osakidetzako langile ez direnek, izapide horiek Erakunde Zentraleko Hautaketa Zerbitzuan egin behar dituzte.
- Dena den, derrigortasun-data iraganda duten lanpostuaz jabetzeko, euskarako hizkuntza-eskakizunaren fotokopia konpultsatua bidali behar da, baldin eta eskatutako hizkuntza-eskakizun hori lehendik ez badago Osakidetzaren esku (oinarri orokorretako 14.2 oinarria), eta baita homologazio- edo baliokidetzaprozesuaren ostean lortutako deialdian eskatzen den titulazioa ere (6.2.c oinarria).

Edozein interesdunek **izangaien zerrendaren aurkako erreklamazioa** aurkez dezake, izangaien zerrenda duen ebazpena argitaratu eta hurrengo 15 egun balioduneko epean. Horretarako, izangaien zerrendaren aurkako [erreklamazio-Eredu](#) bat dago web honetan (lotura).